UDAL SARE INFORMATIKOA BABESTEKO

FIREWALL PLATAFORMA INDARTZEKO KONTRATAZIOA

- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA -

CONTRATACIÓN DE LA POTENCIACIÓN DE LA PLATAFORMA DE FIREWALL

PARA LA PROTECCIÓN DE LA RED INFORMÁTICA MUNICIPAL

- PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

ARLO ARDURADUNA/ ÁREA RESPONSABLE:	INFORMAZIOAREN GIZARTE, HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA AUZOETARAKO ARLOA / AREA DE SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN, PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y BARRIOS.
ESPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE:	2024ZAUN0036

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Irungo Udalaren firewall plataformaren errendimendua indartzea, Palo Alto Networks-en teknologian oinarrituta, Udalari berari eta haren partaidetza duten sozietate publiko batzuei zerbitzuak ematen dizkien komunikazioen Udal-Sarea babesteko.

Horrela, gaur egun funtzionatzen ari den firewall-aren hardwarea eta lizentziamendua berritzea planteatzen da, PA-850 ekipoen gainean instalatuta, abian jartzeko, migratzeko eta konfigurazio aurreraturako beharrezko laguntza-zerbitzuak kontratatzea barne, Preskripzio Teknikoen Agiri honetan aurrerago zehazten den bezala.

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la potenciación del rendimiento de la plataforma de firewall del Ayuntamiento de Irun, basada en tecnología de Palo Alto Networks, destinada a proteger la Red municipal de comunicaciones que presta servicios al propio Ayuntamiento y a una serie de sociedades públicas por él participadas.

Se plantea así una renovación del hardware y el licenciamiento de firewall actualmente en funcionamiento, sobre equipos PA-850, incluyendo la contratación de los servicios de apoyo necesarios para la instalación, puesta en marcha, migración y configuración avanzada, tal como se detalla más adelante en este Pliego de Prescripciones Técnicas.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: ITX2-A8Q4-UYPT-XAZU
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Francisco Javier Arranz Molinero JEFE DE INFORMÁTICA (18/04/2024 08:11 CEST)

2. HORNITU BEHARREKO EKIAPAMENDUAREN EZAUGARRIAK

Hornitu beharreko NGFW plataformak Palo Alto Networks PA-1410 appliancearen 2 unitate izango ditu, erabilgarritasun handian konfiguratzeko.

Bi ekipoek elikatze-iturri bikoitza izango dute.

Honako lizentzia hauek sartuko dira:

- PA-1410 Core Security Subscription Bundle (Advanced Threat Prevention, Advanced URL Filtering, Advanced Wildfire, DNS Security and SD-WAN), **3 urterako**.
- PA-1410 Partner enabled premium support, **3 urterako**.

2. CARACTERÍSTICAS DEL EQUIPAMIENTO A SUMINISTRAR

La plataforma NGFW a suministrar consistirá en 2 unidades del appliance Palo Alto Networks PA-1410, para ser configuradas en alta disponibilidad.

Ambos equipos contarán con doble fuente de alimentación.

Se incluirán las siguientes licencias:

- PA-1410 Core Security Subscription Bundle (Advanced Threat Prevention, Advanced URL Filtering, Advanced Wildfire, DNS Security and SD-WAN), **para 3 años**.
- PA-1410 Partner enabled premium support, **para 3 años**.

3. BARNE SARTUTAKO ZERBITZUAK

3.1 INSTALAZIOA ETA KONFIGURAZIOA - 1.FASEA.

Enpresa esleipendunak,

- PA-1410 firewall berriak prestatuko ditu;
- PA-850etan zehaztutako konfigurazioa PA-1410 berrietara transferituko du;
- Udaleko DPZn dauden rack-etan instalatuko ditu makinak fisikoki;
- interfazeen eta VLANen multzokatzea konfiguratuko du, kudeatutako egungo sareak dedikatutako ahoetan bateratuz, interfazeen agregatua sortuz eta NATen politikak berrikusiz.

3. SERVICIOS INCLUIDOS

3.1. INSTALACIÓN Y CONFIGURACIÓN - FASE 1.

La empresa adjudicataria,

- realizará la preparación de los nuevos firewall PA-1410;
- efectuará el traspaso de la configuración definida en los PA-850 a los nuevos PA-1410;
- instalará físicamente las máquinas en racks ya existentes en el CPD del Ayuntamiento;
- realizará la configuración de la agrupación de interfaces y VLANes, unificando las redes actuales gestionadas en bocas dedicadas, generando un agregado de interfaces y revisando las políticas de NAT.

3.2 ERABILTZAILEEN ARABERAKO SEGMENTAZIOA - 2. FASEA

LANen barruko trafikoa kudeatzeko (OSI - 7. geruzara mugatuta), Firewall-aren segmentazio bat planteatzen da, zerbitzariak eta gutxi gorabehera udal LANek barne hartzen dituen 35 lantokiak bereiziz.

Lana termino hauetan planteatzen da:

- Segmentazioa kokapenaren arabera egingo da (lantokia/eraikina), eta dagozkion VLANak ezarriko dira.
- Egungo helbideratze-filosofiari eutsiko zaio, IP estatikoetan oinarrituta, eta segmentazio berrira egokitu beharko da.
- Enpresa esleipendunak ezarriko du lantoki bakoitzerako helbideratze-plana, eta Udal Informatika Zerbitzuko langileak arduratuko dira LANeko makina bakoitzean aldaketak aplikatzeaz, eraikinez eraikin.
- Enpresaren lana, Firewall mailan, aurreko puntuan adostu eta ezarritako sareen/VLANen konfigurazioan eta 7. geruzara egokitzean oinarrituko da.
-

4. EPEA ETA LAN-PLANA

- Gehienez 3 HILEKO epea ezartzen da hornidurarako, instalazioa abian jartzeko, eta 3. puntuan deskribatutako konfigurazio-lanak egiteko, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

3.2 SEGMENTACIÓN POR USUARIOS - FASE 2

Con el fin de gestionar el tráfico intra-LAN (acotado a capa 7 - OSI), se plantea una segmentación del Firewall, separando los servidores de los aproximadamente 35 centros de trabajo que comprende la LAN municipal.

El trabajo se plantea en los siguientes términos:

- La segmentación se realizará por ubicación (centro de trabajo / edificio), estableciendo las correspondientes VLANs.
- Se mantendrá la actual filosofía de direccionamiento, basado en IPs estáticas, que tendrá que ser adaptado a la nueva segmentación.
- La empresa adjudicataria establecerá el plan de direccionamientos para cada centro de trabajo, ocupándose el personal del Servicio de Informática Municipal de aplicar los cambios en cada una de las máquinas de la LAN, edificio a edificio.
- El trabajo de la empresa se centrará, a nivel de Firewall, en la configuración de las redes/VLANs consensuadas y establecidas en el punto anterior, y en la adecuación a capa 7.

4. PLAZO Y PLAN DE TRABAJO

- Se establece un periodo máximo de 3 MESES para el suministro, instalación, puesta en marcha, y realización de los trabajos de configuración descritos en el punto 3, a contar desde la fecha siguiente a la de la firma del contrato.

- Enpresa esleipendunak lan-plan bat aurkeztu beharko du, prozesuaren fase bakoitzari dagozkion ekintzak banakatuta, eta udal-teknikarien aldetik beharko den laguntza.

- Enpresa esleipendunak teknikari bat izendatuko du proiektuaren arduradun.

- La empresa adjudicataria deberá presentar un esquema de plan de trabajo, desglosando las acciones correspondientes a cada una de las fases del proceso, debiéndose indicar el grado de apoyo que se requiere de los técnicos municipales.

- La empresa adjudicataria designará a un técnico responsable del proyecto.

5. MATERIALA BERREROSTEA

PA-1410 appliance berriak ezarri eta martxan jartzeko prozesua amaitutakoan, enpresa esleipendunak PA-850 agiriak kendu eta jasoko ditu.

Egungo ekipoen balorazioa eskaintzaren preziotik kenduko da, eta zenbateko bakar gisa aurkeztuko da.

5. RECOMPRA DE MATERIAL

Una vez concluido el proceso de implantación y puesta en servicio de los nuevos appliances PA-1410, la empresa adjudicataria retirará los PA-850.

La valoración de los equipos actuales será deducida del precio de la oferta, que será presentado como un importe único.

UDAL INFORMATIKA ZERBITZUKO BURUA
EL JEFE DEL SERVICIO DE INFORMÁTICA MUNICIPAL
Fdo. Javier Arranz Molinero